¿Zegaitik ezin dogu guk sartu idazti au kutxa onetan? Idaztia andia ta kutxea txikia diralako. Idaztia andia ta kutxea txikia dira ta).

Itxi egizuz begiak; zuk ezin dozu ikusi arean bere. ¿Zegaitik ezin dozu ikusi? Begiak itxita daukodazalako. (Begiak itxita daukodaz eta). Zabaleta jauna ez dago emen. ¿Zegaitik ezin dabe ikusi ikasleak Zabaleta jauna? Bera ez dagolako emen. (Ez dago bera emen eta). Nik artu dot zure idaztia. ¿Irakurri zeinke? Ez, ezin dot. ¿Zegaitik? Idaztirik ez daukot eta.

Iriondo jaunak ez dauko betaurerikorik. ¿Ikusi leike berak ezer betaureriko barik? Ez, berak ezin dau ezer ikusi. ¿Zegaitik ezin dau ikusi ba? Betaurerikoak ez daukoz eta.

Gura dot, ez dot gura

Atea zabalik dago. ¿Urten zeinke? Bai, urten neinke. ¿Zegaitik ez dozu urteten ba? Zuk ez dozulako gura (zuk gura ez dozulako).

¿Apurtu zeinke zure idaztia? Bai, neuk apurtu neinke nire idaztia. ¿Zegaitik ez dozu apurtuten ba? Zuk gura ez dozulako (zuk ez dozulako gura).

Nik ausi neinke erlojua; baña ez dot ausi gura. Neuk apurtu neinke nire yantzia, nire yakea, baña ez dot apurtu gura.

Irakasleak idatzi leike orman, baña ez dau idatzi gura (ez dau idatzi nai).

Nik gura dot (nai dot), zuk gura dozu (nai dozu), berak gura dau (nai dau), guk gura dogu (nai dogu),

zuek gura dozue(nai dozue), eurak̄ gura dabe (nai dabe).

Nik ez dot gura, zuk ez dozu gura (ez dozu nai), berak ez dau gura, guk ez dogu nai, zuek ez dozue nai, eurek ez dabe nai.

¿Urten zeinke? ¿Gura dozu urten? ¿Ausi zeinke leyoa? ¿Nai dozu leyoa ausi? ¿Nai dozu euskeraz egin emen? ¿Erderaz nai dozu egin? ¿Zer da zuk irakuñi nai dozuna, idaztia ala egunorokoa? ¿Nai dozu zerbait yan? Ez, eskerik asko, ez dot ezer yan gura. ¿Gura dozu zerbait edan? ¿Zer da zuk edan nai dozuna?

Ezkero, baldin ba..., ezin

Atea itxita dago: atea zabalik dago.

Atea itxita dago: ezin geinke urten.

Atea itxita baldin badago ezin geinke urten (atea itxita egon ezkero ezin giñei urten).

Begiak itxi ezkero (begiak izten baldin ba ditugu) ezin geinke ikusi.

Ingeltsorik euki ezik, ezin dot idatzi olbaltzean.

Ez arkatzik ez lumarik euki ezik ezin geinke idatzi.

¿Urten geinke atea zabalik egon ezik? (¿Atea zabalik egon ezik urten geinke?) ¿Kolararik euki ezik yan geinke soparik? ¿Aiztorik euki ezik ebagi geinke okelea?

Bear dot, bear dozu, zabaldu bear dot...

Atea itxita dago. Urten egin gura dozu. (Urten gura dozu). Atea zabaldu ezik ezin zeinke urten; atea zabaldu bear dozu urten gura baldin badozu.

Begiak zabaldu ezik ezin dogu ezer ikusi; begiak zabaldu bear ditugu ikusteko.

Olbaltzean idazteko igeltsoa bear dogu.

¿Zer egin bear dogu leku batetik urteteko? Atea zabaldu bear dogu. ¿Ikusteko zer egin bear dogu? Begiak zabaldu bear ditugu ikusteko. ¿Zer egin bear dot edo

zer euki bear dot, zer artu bear dot olbaltzean idazteko? Igeltsoa artu bear dozu olbaltzean idazteko. Sopea yateko ¿zer artu bear dogu? Kolarea artu bear dogu guk sopea yateko. Okelea ebateko ¿zer euki edo artu bear izaten dogu? Aizto bat artu bear izaten dogu okelea ebateko. Berba egiteko ¿ezer egin bear izaten dozu? Aboa zabaldu bear izaten dot berba egiteko.

Jaun onen idaztia itxita dago. ¿Irakurri leike? Ez, ezin dau irakurri. Irakurri gura baldin badau (irakurteko) ¿zer egin bear ete dau? Bere idaztia zabaldu bear dau (zabaldu egin bearko dau).

Ikasleak ez daukee ez ingirik ez arkatzik. ¿Ezer idazti leikee? Ez, ezin dabe ezer bere idazti. ¿Zegaitik? Ez daukelako ez ingirik ez arkatzik. Ingi barik eta arkatzik barik ezin dabe ezetara bere, ezer idatzi. Idatzi nai baldin badabe ¿zer egin bear ete dabe? Ingia ta arkatza eskatu bear dautzue.

ALKAR “alkar ikusi”, “alkar artu”, “alkarregaz ezkondu”, “alkarren ondoan egon, bizi”, “alkarregandik urin bizi”, “alkarren leyan ibili” “alkareri inun diranak esan”, “alkarregaz etori”.

Aita ta biok kalean alkar ikusi dogu. Alkar ikusi dozue. Alkar ikusi dabe. Ondo alkar artu dogu. Ondo alkar artu dabe. Ipiñaburu'ko Kontze ta Legendika'ko Imanol alkarregaz ezkondu dira. Alkarregaz ezkondu gara. Alkarregaz (alkarekin) ezkonduko zaree. Euba ta Bedialauneta jaunak alkarren ondoan dagoz. Alkarren ondoan bizi dira. ¿Nortzuk bizi dira alkarren ondoan? Euba ta Bedialauneta jaunak bizi dira alkarren ondoan. ¿Euba ta Bedialauneta jaunak alkarren ondoan bizi dira? Ez, ez dira alkarren ondoan bizi, alkarregandik urin baño. Alkarren ondoan bizi gara. ¿Zer esan dot? Alkarren ondoan bizi zareela esan dozu. Alkarregandik urin bizi zaree. ¿Zer esan dot? Alkarregandik urin bizi garala esan dozu. ¿Nortzuk bizi dira alkarregandik urin? Gu bizi gara urin alkarregandik. Eskola onetako ikasleak alkarren leyan dabilte euskera ikasten. Alkareri inun diranak esaten ibili dira. Alkarekin etori dira.

Emeretzigaren ikaskaya

Emen, or, an; «ementxe, ortxe; 'n

Emen irakuñi dogu. ¿Nun irakuñi dozue? Ementxe irakuñi dogu. Or irakuñi dozue. ¿Nun irakuñi dabe? Ortxe irakuñi dabe. An yazo da. Bilbo'n yazo da. ¿Nun yazo da? Bergara'n yazo dana irakuñi dogu ementxe. Idaztian irakuñi doguna, Bilbo'n yazo da. Idazti onetan irakuñi dozuena, Bergara'n yazo da. Yazoko da. Yazoten da. ¿Nun yazo da idazti onetan irakuñi doguna? Bergara'n yazo ei da idazti onetan irakuñi dozuena. ¿Inun yazo alda? Ez ez da inun yazo. Nunbaiten yazo da. Durango'n yazo ei da.

Eguraldia ilun dago. Eguraldia ilun egon da. Eguraldia argi dago. ¿Zelan dago gaur eguraldia? Eguraldia gaur ilun-ilun dago. Eguraldia gaur argi-argi dago. Gaur eguraldia ez dago ilun, argi-argi dago. Eguraldi edera dago. ¡Au da eguraldiaren edera! Emen, Gernika'n, gaur, merkatu eguna da, astelena da ta. Astelenetan izaten da merkatu eguna Gernika'n. ¿Noiz izaten da Gernika'n merkatu eguna? Astelenetan izaten da Gernika'n merkatu eguna. Gaur ez da merkatu eguna; biar izango da. ¡Au da merkatuaren edera! Ni sartu naz merkatu egun baten Gernika'n. Ibañondo jauna sartu da merkatu egun baten Markina'n. Gu sartu gara merkatu egun baten Valmaseda'n. ¿Nor sartu da merkatu egunean Durango'ko denda baten? Eeibar'ko denda baten ikusi dot. Elgoibar'ko denda baten ikusi dogu argi eder bat. ¡Ori da argiaren edera! ¡Ori da emakumearen dotorea! Ikatza ta Ibañondo jaunak sartu dira Gernika'n denda baten, eta antxe ikusi dabe argi dotore bat. ¡A da argiaren dotorea! ¿Nun sartu dira Ikatza ta Ibañondo jaunak? Gernika'n, denda baten. Argiari begira egon naz. Argiari begira nago. Egon zaitez apur baten argiari begira-begira Ibañondo neskatila argiari begira dago. Zuek argiari

begira-begira zagoze. Argi makatza da au. Au argi makatza da ¿Zer da au? Ori argi makatza da. ¿Zelan esaten da erderaz, argi-makatza? Emakume bat; emakume bi; iru emakume. Emakumetxo bat, emakumetxo bi, iru emakumetxo; ¿Nor sartu da denda baten? Emakumetxo bat sartu da Bilbo'ko denda baten. Nun sartu da emakume ori? Bilbo'ko denda dotore baten sartu da emakume ori. Ikusi dot. Ez dot ikusi. ¿Ikusi dozu? Bai, jauna, ikusi dot. Bilbo'ko denda eder baten ikusi dot argi makatz dotore-dotore bat. ¿Zelan esaten da erderaz dotorea? Emakumetxo bat sartu da eskolan eta maya ikusi dau; Ikusi egin dau. Ikusi egin dozu. Ikusi egingo dot. Ikusi egingo dozu. Ikusi egingo dau. Ikusi egingo dogu. Ikusi egingo dozue. Ikusi egingo dabe. Ez dot ikusiko.

esan, egon, ikusi, gusteu

Esan dautsot. Esango dautsot. Esan daustazu. Esaten dautzut. Niri esan daust Ibañondo jaunak Bilbo'ko denda dotore-dotore baten argi makatz eder bat ikusi dabela. Argi makatza ikusirik esan dautsot eñxeko-andreari. ¡Au da argiaren edeña! ¡Au da dendearen andia! ¡Au da egunaren beroa! ¡Au da eguraldiaren euritsua! Ibañondo jaunak, dendea ikusirik esan dau: ¡au da dendearen zabala ta andia ta edeña! Egundo onako dendarik ez dot ikusi. ¡Egundo onakorik! ¡Ene! ¡Au da dendearen edeña! Egundo onako dendarik! ¡Egundo onakorik! ¿Zelan esaten da erderaz “¡egundo edo egundo onakorik”!... Gustetan yat denda au edeña dalako. Edeña ta argia dalako gustetan yat denda au. Dorotea, zabala, polita, andia... dalako gustetan yat sano denda au. ¿Zegaitik gustetan yatzu denda au, Zabalandikoetxea jauna? Edeña dalako; polita dalako; argia dalako... gustetan yat denda au. Eskola au bere, sano gustetan yako Ibañetxebea andreari. Niri bañiz ez yat gustetan denda au. Arean bere ez yat gustetan. Niri beste denda bat gustetan yat.

Gustetan yat, gustetan yatzu, gustetan yako, gustetan yaku, gustetan yatzue, gustetan yake. Ez yat (etxat gustetan); ez yatzu (etxatxu gustetan)... ta abar.

Egon naz. Begira-begira egon gara; begira - begira egon zaree. Begira-begira egongo dira. Emakumetxoa argiari begira-begira dago. Ez dago begira.

Eskolako maya ikusirik apur baten berari begira-begira egon naz eta irakasleari esan dautsot: ¡Au da mayaren zabala! ¿Berořena da? Bai nirea da. Emakumetxoarena da.

Polito ikusi dot. Polito dago. Polito dago-lako gustetan yako argi-makatza Zinkunegi jaunari. Polito-polito toloztuta sartu dozu zure sur-zapia kutxa baruan. Sur-zapia mai gañean ikusirik, polito-polito toloztu, ta sartu dau irakasleak kutxa baruan. Orain polito dago sur-zapia zurezko kutxa baltz dotore ořetan. Polito dago irakasle jaunaren sur-zapia bere zurezko kutxatxo dotore ořetan. Polito dago irakasle jaunaren sur - zapia bere zurezko kutxatxo dotore ořetan. ¿Zelan dago irakaslearen sur-zapia? Polito dago irakaslearen sur - zapia. ¿Nun dago polito irakasle jaunaren sur-zapia? Bere zurezko kutxatxo ořetan dago polito irakaslearen sur-zapia.

kosteu, erosi, saldu

Ibařondo jauna denda baten sartu da, ta sur-zapi dotore bat erosi dau. ¿Nun sartu da Ibařondo jauna ta zer erosi dau? Denda baten sartu, ta sur-zapi dotore bat erosi dau. ¿Nor sartu da denda baten eta zer egin dau? Ibařondo jauna sartu da denda baten, eta sur-zapi dotore bat erosi dau. ¿Zelango sur-zapia erosi dau Ibařondo jaunak? Sur-zapi dotorea erosi dau Ibařondo jaunak.

¿Zenbat kostetan da onako sur-zapi bat?, esan dautso Ibařondo jaunak dendedeari. ¿Zenbat kostetan da onako bat? ¿Zenbat kostetan da ořako bat? ¿Zenbat kostetan da alako bat?

Amar eREAL kostetan da onako bat, erantzun dautso dendeerak Ibañondo jaunari. ¿Bat erosiko zenduke? Bai bat erosiko neuke. Sur-zapi bat erosiko genduke.

Erosiko neuke, erosiko zenduke, erosiko leuke, erosiko genduke, erosiko zendukee, erosiko leukee; erosiko zeunskit, erosiko leuskit ta abar.

Bat erosiko leuke Ibañondo jaunak eta itanduten dau; ¿nun saltzen dira? ¿Nun saltzen ete dira onetariko sur-zapiak?

¿Zuk daukozuz emen salgei ala? Bai, nik daukodaz ementxe, erantzun dautso dendereak.

Nik daukodaz, zuk daukozuz, berak daukoz, guk daukoguz, ta abar.

Ogeigaren ikaskaya

gura-izan, imiñi, agur-esan, yoan, 'nean

Gura dot. Ez dot gura. Gura dogu. Ez dogu gura. Irakasle jaunak erosi gura dau. Ez dau erosi gura. Imiñi gura dabe. Argi-makatza imiñi gura dabe eskolan. Ez dabe imiñi gura. ¿Gura dozu idazti bat?

¿Emen saltzen ete dira idaztiak? Bai, emen saltzen dira. ¿Gura dozu bat ala? Bai, imiñi egiozu bat Zabaleta jaunari.

Imiñi dagidala, imiñi dagizula, imiñi dagiala, imiñi dagigula, imiñi dagizuela, imiñi dagiela... ta abar.

Imiñi egizu, ez egizu imiñi; imiñi egizue, ez egizue imiñi; imiñi egistazu, imiñi egiozu...

Imiñi dagidanean, imiñi dagizunean, imiñi dagigunean, agur esan dagigunean... ta abar.

Sur zapi dotore au mai gañean imiñi dagidanean ikasle guztiak poz andia artuko dozue. Nik olbaltzean zenbaki bat idatzi dagidaenan ikasle guztiak irakurri egingo dozue. Sekulako poza artu dau Erenteria jaunak, eta agur esanaz etxera yoan da.

artu bear dot, artu bear dozu, artu bear dau,

artu bear dogu... ta abar

Sekulako poza artu bear dozue gaur gabean olbaltzean gauza bat imiñi dagidanean. Argitxo datore au eskolan imiñi dagigunean. Imiñi egistazu orotariko argitxo dotore bat. Sekulako ikarea artu bear dau gaur gabean Ibañondo jaunak, argitxo ori eskolan ikusi dagianean. Ikusi dagigunean, ikusi dagizuenean, ikusi dagienean. Gure eskolan argitxo dotore ori imiñi dagigunean dan-danak esango dabe: "¡Ori da argiaren edera!"

Esan dot, esan dautsot, esan daust. Esaten dot, esaten dautsot, esaten daust. Ez dot esaten, ez dautsot esaten.

Esan egiozu, ez egiozu esan. Esan egistazu, ez egistazu esan... ta abar.

Gustetan yat, ez yat gustetan; gustetan yako, ez yako gustetan... ta abar.

Imiñi dau, imiñi dogu, imiñi dozue, imiñi dabe, ta abar.

Imiñi dau argi makatza polito-polito bere kutxatxoan, eta agur esanaz yoan da. Agur esanaz alde egin dau. Agur esanaz alde egin dot. Agur esanaz alde egin dabe, ta abar.

Agur esanaz urten dot eskolatik, agur esanaz urten dozu eskolatik, ta abar.

Irakasle ona agur esanaz yoan da etxera. Lau urteko umeak baño gaiztotasun geyago ez dauko irakasleak. Lau urteko umeak baño gaiztotasun geyago ez daukon gizon zintzoak, agur esanaz, eskolatik urten dau.

¿Nok urten dau eskolatik agur esanaz? Lau urteko umeak baño gaiztotasun geyago ez daukon gizon zintzo batek.

Uréngo egunean etóri da baíro. Uréngo egunean óra nun agertzen dan béra baíro. Uréngo egunean agertu naz. Uréngo egunean agertu da.

Agertu nazanean, agertu zaranean, agertu danean, agertu garanean, agertu zareenean, agertu diranean.

Irakaslea etóri danean así gara ikaskayak emoten. Zuek zatozenean asten gara ikaskayak emoten, eurek datozenean asten gara ikaskayak emoten, ta abar.

Uréngo merkatu eguna danean yoango gara argi makatzak erosten Artekaleko dendara. ¿Nora yoaten gara argi makatzak erosten. ¿Zetan yoaten gara Artekale'ko dendara? Argi makatzak erosten yoaten gara Artekale'ko dendara. ¿Noiz yoango gara argi makatzak erosten Artekale'ko dendara? Uréngo merkatu eguna danean yoango gara argi makatzak erosten Artekale'ko dendara.

Len eroan dodan idaztia ez da ona izan; len eroan dozun idaztia ez da ona izan; len eroan dogun kutxea baltza izan da; len eroan dozuen sur-zapia andia izan da. Ara, ba, len eroan dogun ingia txara izan da, ez da ona izan.

eldu, ikeratuta itxi, legez (lez), lenbeste

Pozáren eldu naz eskolara. Pozáren eldu zara eskolara. Pozáren eldu da etxera, ta abar. ¿Zelan eldu zara etxera? Pozáren eldu naz etxera. Estuen nago, estuen dago, ta abar. Estuen egon naz, estuen egon zara.

Artekale'ko dendan erosi dodan idaztia eskolako mai gañean imiñi dot, eta pozáren eldu naz ori egiteko. Pozáren eldu naz eskolara irakaslea ikeratuta izteko. ¿Zelan eldu zara eskolara? Pozáren (pozik) eldu naz eskolara irakaslea ikeratuta izteko. ¿Zetarako eldu zara pozáren eskolara? Irakaslea ikeratuta izteko eldu naz pozik eskolara.

Baña nire poza pozure yoan da; zure poza pozure yoan da; bere poza pozure yoan da, ta abar. ¿Nora yoan

da gure poza? Imiñi dot liburu au eskolako mai gañean eta lenbestean gelditu dira danak. Lenbeste argi, lenbeste ilun gelditu da eskolea. Esakerea dan legez, nire poza pozure yoan da. Imiñi dot argi ontzia ta len beste ilun gelditu da, ta esakerea dan legez, nire poza pozure yoan da.

burle egin, fundidu, kendu

Burle egin daust, burle egin dauste, burle egin dautsot, burle egin daustazue ta abar. Burle egin dautsat sano nire ikaskide bateri. Burle egin dauste sano ikaskideak niri. Burle egin dautset nik ikaskideei. Burle egin daust sano irakasleak esaten izan dabela... Eretziñearen argia ona da. Eretziñearen argia edera da. Eretziñearen argia eletrikea baño ederagoa da. Ez dago ondiño argirik eretziñearen alderako. Gure irakaslearen alderako ez dago ondiño irakaslerik. Gure mutilaren alderako ez dago ondiño beste mutilik. Gure eskolearen alderako ez dago ondiño, beste eskolarik. Gure eskolea da onena, gure irakaslea da onena, gure mutila da onena. Gure mutil, eskola, ta irakaslearen alderako ez dago ondiño mutilik, eskolarik eta irakaslerik. Eretziñearen alderako ez dagola ondiño argirik esaten izan dabe. Eretziñearen alderako ez dagola ondiño argirik esaten izan daust irakasleak niri.

¿Fundiduta ete dago ba? ¿Eskolako atea itxita ete dago ba? ¿Eskolako leyoa zabalik ete dago ba? ¿Epelde jauna yañita ete dago ba? ¿Fundiduta egon ete da ba? Ekañi dot bonbilea, ekañi dozu bonbilea, ta abar. Ez dot ekañi, ez dozu ekañi, ez dau ekañi, ta abar.

¿Ekañi dozu idaztia? ¿Zera? ¿Irakurtekoa? ¿Yatekoa? ¿Argi egitekoa? Bai, ara...

Irakasleak artu ta imiñi dau beste idaztiaren lekuan nik dendatik ekañi dodan idaztia. ¿Zer imiñi dau irakasleak beste idaztiaren lekuan? Nik dendatik ekañi dodan

(ekafitako idaztia). Irakasleak, nik dendatik ekañiriko idaztia imiñi dau beste idaztiaren lekuan, berau kenduta. Kenduta dago, Berau kenduta imiñi dau irakasleak nire idaztia beste idaztiaren lekuan.

Ikusten dot, ikusten dozu, ikusten dau, ikusten dogu, ta abar.

¿Ikusten dozu zein polito, Ibañondo jauna?, esan dautso irakasleak. Andie da gero erantzun dautso Ibañondo jaunak irakasleari.

¿Zelan ikusi dozu? ¿Zelan imiñi dozu? ¿Zelan imintzen dozue?, ta abar.

Nik ondo imiñi dot, zuk ondo imiñi dozu, berak ondo imiñi dau. Nik ortxe dagon legez imiñi dot, zuk ortxe dagon legez imiñi dozu, berak ortxe dagon legez imiñi dau. Goiko leyoko untze batetik soka bategaz dingilizke imiñi dot. Goiko ateko untze batetik soka bategaz dingilizke imiñi dogu, ta abar.

Baña, Ibañondo jauna, Jaungoikoak parkatu dagidala (dagistala), arkatzik ezpadaukozue onek ez dautzue balio. Ogirik ezpadaukozue ezin dozue ondo yan. Ardaorik ezpadaukozu ezin dozu ondo afaldu ta abar. Onek balio dautzu, onek ez dautzu balio, orek ez dautso balio, ta abar

Atzera artu, atzera emon, aditu erazo

Atzera artu dautso, atzera artu dautsozu, atzera artu dautso, atzera artu dautsagu, atzera artu dautsazue, atzera artu dautsoe. Atzera artu dautsat idaztia irakasleari, ta atzera emon dautsodaz bost eñealax dendereari. Inun diran gauzak aditu erazo daustaz, inun diran gauzak aditu erazo dautsodaz, ta abar.

Inun diranak esan daustaz, inun diranak esan dautsazuz, inun diranak esan dautskuez, ta abar. Inun diran atzalgundeak egin daustaz aditu erazoteko, oratz barik ezin dala yosi, arkatz barik ezin dala idatzi, atez zabaldu barik ezin dala eskolatik urten, ori barik ez dala gauza irakurteko etxera eroandako idaztia.

ulertu, lenbestean yoan

Ulertu dot, ez dot ulertu, ez dau ezer bere ulertu, ez dogu ezer bere ulertzen. ¿Ulertu dozu? Ez, jauna, ez dot ezer bere ulertu. ¿Ezer ulertu dau? Ez, jauna, ez dau ezer bere ulertu, ta abar.

Lenbestean yoan da. Len baño txartoago yoan da, buru beruan naste ilun bat daroalako, ta abar.

NOBERE BURUA IKUSI, IL, GARBITU

Neure burua ispiñuan ikusi dot, zeure burua ispiñuan ikusi dozu, bere burua ispiñuan ikusi dau, gure burua ariskuan ikusi dogu, zuen burua arisku goñian ikusi dozue, euren burua ispiñuan ikusi dabe. Gizon orék bere burua il dau. Neure burua ondo garbitu dot. Zeure burua garbitu egizu. Bere burua garbitu dau. Kanean alkar ikusi dabe ta euren burua il. Ez dot neure burua ilgo, ez dozu zeure burua il bear, ez dozu zeure burua garbitu bearik, ez dau bere burua garbitu bear izango.

Irakaslea ikusi dot.

Irakasleak bere burua ikusi dau.

Nik neure burua ikusi dot, zeuk zeure burua ikusi dozu, berak bere burua ikusi dau, geuk geure burua ikusi dogu, zeuk zeuen burua ikusi dozue, eurek euren burua ikusi dabe. Neure burua il dot, zeure burua il dozu, bere burua il dau...

Nik ikasle bat ikusi dot, guk ikasle bat ikusi dogu, geuk geure burua ikusi dogu, geuk alkar ikusi dogu; zeuk ikasle bat ikusi dozu, zeuk zeure burua ikusi dozu; zuek ikasle bat ikusi dozue, zuek zeuen burua ikusi dozue, zuek alkar ikusi dozue; eurek ikasle bat ikusi dabe, eurek euren burua ikusi dabe, eurek alkar ikusi dabe, alkar il dabe. ¿Nun ikusi dozu zeure burua? Ispilu baten

ikusi dot neuk neure burua. ¿Nok ikusi dau bere burua
ispilū baten? Neuk ikusi dot neure burua ispiū baten.
¿Zer egin dozu? Ikusi egin dot neuk neure burua ispiū
baten. ¿Nun ikusi dozue alkar? Kalean ikusi dogu alkar.
Gizon bik kalean alkar ikusi dabe. Alkarégaz bizi dira
orék; alkarégaz bizi gara, ta abar.

GAUZEN IKASKIZUNAK

ERLOJUA

¿Ze ordu da?

Itzez egitekoa

Ona sakelerako erloju bat, ora ormarako erloju bat. Ordu batak dira, ordu biak, irurak, laurak, bostak, seirak, zazpirak, zortzirik, bederatzirik, amarak, amaikak, amabiak. Laurak eta laurenak dira; lau ta erdiak (laurterdiak). Bostak. Bostak eta bost, eta amar, eta ogei, eta ogetabost. Seirak ogetabost gitxiago, seirak ogei gitxiago, amar gitxiago, bost gitxiago. Zazpirak. Zazpirak eta beroge. Zortzirik. ¿Ze ordu da? ¿Ze ordu dogu? Ordu batak, ordu biak, irurak, eta abar...

Zu amaiketan etorten zara ona. Amaibietan yoaten zara emetik. Ordu batetan bazkaltzen dozu. ¿Ze ordutan etorten zara ona? ¿Ze ordutan yoaten zara emetik? ¿Ze ordutan bazkaltzen dozu?

Ordu batek, irurogei minutu ditu. Ordu erdi batek ogetamar minutu ditu. Ordu lauren batek amabost minutu ditu. ¿Zenbat minutu ditu ordu batek? ¿Ordu erdi batek? ¿Ordu lauren batek?

Ormarako erloju bat sakelerakoa baño andiagoa da. Yakea, koratiloa baño luzeagoa da. Bilbo, Eloño baño andiagoa da. ¿Ormarako erlojua sakelerakoa baño andiagoa da? ¿Koratiloa yakea baizen luzea da? (Ez, ez da ain luzea, laburagoa da. ¿Bilbo Eloño baizen txikia da? (Ez, ez da ain txikia andiagoa baño).

Lañoseak usain ona botaten dau; klabeliñeak baño usain gozoago dauko. ¿Klabelediñeak baño usain gozoago ete dauko lañoseak? ¿Klabelediñeak lañoseak baizen usain gozoa ete dauko? ¿Kafe baltza ona ete da? ¿Akeite azukereagaz (azukeradun akeita), azukera bakoa baño obea ete da? ¿Zure lumea ona da? ¿Nirea baño obea da?

¿Egur éreak usain txarra botaten dau? ¿Tinteak egur éreak baizen usain txarra botaten dau?

Gaur Durango'n merkatu eguna da ta eguraldia ilun-ilun dago. Zuen lumea ona da; ederto idazten dau (beragaz ederto idazten da, beragaz ederto idatzi leiteke). Nire lumea txarra da, beragaz ezin leiteke ondo idatzi. Zure oguzkerea ona da, zuk ederto oguzten dozu. Gizon bat sartu da Durango'ko denda baten eta tximistargi makatza ikusi dau. Ibaseta anderañoak oguzkera txarra dau, txarto oguzten dau berak. ¿Zure lumeagaz ondo idatzi leiteke? ¿Aizto onek ondo ebaten dau? ¿Ondo ebaten al dau aizto onek? Zuk euskeraz ederto egiten dozu, baña erderaz obeto, alan bere. ¿Euskeraz, erderaz baizen ondo egiten dozu? Ez, ez dot ain ondo egiten, txartoago egiten dot. Egurola jaunak betaurrekoak erabilten ditu, zuk ez dituzu erabilten. ¿Zuk, Egurola jaunak baño obeto ikusten dozu? Emen irakuri dozuna Bilbo'ko denda baten merkatu egunean yazo da.

Irakuri ta itz egiteko

Ormarako erlojua sakelerakoa baño andiagoa izaten da; guk lenengokoa gela baten sapaldai gañean, edo orma kontran iminten dogu; bestea sakelean, boltsiloan erabilten dogu. Ormarako erlojuak edo zurezkoak, edo arizkoak edo burdin gorizkoak izaten dira; sakelerakoak bariz, edo urezkoak, edo zidañezkoak, edo nikelezkoak, edo galtza iruzkoak. Bata eta bestea, zein ordutan bizi garean yakiteko erabilten edo eukiten ditugu. Ordu bategen irurogei minutu ditu. Ta minutu bakotxak irurogei segundu ditu. Ogeta lau orduk egun bat egiten dabe.

Ikasgu onetan ormarako erloju bat dago, baña ez dabil; kordelik ez dauko ta geldi dago. Nik emongo dautsot kordela. Nik emon bear dautsot kordela. Ona giltza. Nik ordutan iminten dot erlojua. Nik iminten dot erlojua ordutan; amaikak eta ogei dira. Atzeratu egingo dot; amaikak egin-egiñetan imiñi bear dot. Zure erlojua ederto, guztiz ederto dabil, ez da auñeratu ez atzeratzen, egin-egiñean dabil beti. ¿Ze ordu ete da, X anderañoa? Ama-

biak lauren gitxiago dira, jauna. Ajuria andrearen ikaskaya amaiketan asi ta amabietan amaitzen da, ordu bete irauten dau. ¿Ze ordutan asten dozu ikaskaya? ¿Ze ordutan amaitzen dozu? ¿Amaitu dozu? ¿Ze ordutan etortzen zara eskolara? ¿Ze ordutan bazkaltzen dozu?

Eragokunak

(Erantzun ondo itauna oneri)

1. ¿Zelango autua erabili dogu aurereko ikaskai oretan?
2. ¿Gela onetan ormarako erlojurik ete dago? 3. ¿Nun dago? 4. ¿Sakelerako erlojurik badaukozu? 5. ¿Sakelean daukozu? 6. ¿Nun iminten dogu ormarako erlojuak?
7. ¿Segundoak koskatzen ditu zure erlojuak? 8. ¿Ze ordu da zure erlojuan? 9. ¿Ze ordutan asten zara ikaskaya emoten? 10. ¿Ze ordutan amaitzen dozu? 11. ¿Zenbat minutu ditu ordu batek? 12. ¿Zenbat ordu ditu egun batek? 13. ¿Zenbat segundu ditu minutu batek? 14. ¿Erlojuau ba dabil? 15. ¿Zure erlojuu atzera dabil? 16. ¿Ibili leiteke zure erlojuu kordelik emon barik? 17. ¿Zegaitik emoten dautsozu kordela erlojuari? (¿Zetarako emoten dautsozu kordela erlojuari?). 18. ¿Aurera dabil zure erlojuu? 19. ¿Nire erlojuu atzera dabil? 20. ¿Ormarako erlojuu sakelerakoa baño andiagoa ete da? 21. ¿Maya arkiu baño andiagoa da? 22. ¿Ormea maya baño luzeagoa da? 23. ¿Leyoa atea baizen luzea da? 24. ¿Nire yakea korati-
loa baño andiagoa da? 25. ¿Andrak gizonak baño luzeagoak ditue uleak? 26. ¿Emakumeen kapelak gizonenak baño obeak ete dira? 27. ¿Ura esnea baño obea da artzeko? 28. Klabeliñeak lañoseak baño usain gozoagoa dau? 29. ¿Egur ereak tinteak baño usain obea dauko? 30. ¿Erderaz euskeraz baño obeto oguzten dozu zuk? 31. ¿Euskeraz ondo oguzten dozu? 32. ¿Zure irakasleak zuk baño obeto oguzten ete dau? 33. ¿Nik baizen ondo idazten dozu zuk? 34. ¿Begi onak dituzu? 35. ¿Ondo ikusten dozu? 36. ¿Egurbide jaunak betaurereko barik ondo ikusten ete dau? 37. ¿Betaurerekoakaz obeto ikusten dau?

URTEA

¿Ze egun da gaur?

Itzez egitekoa

Egunak ogetalau ordu ditu. Zazpi egunek aste bete egiten dabe. Asteko zazpi egunak onexek dira: astelena, martitzena, eguaztena, eguena, barikua, sapatua ta domekea. ¿Zeintzuk eta dira asteko zazpi egunak? (¿Zeintzuk dira asteko zazpi egunen izenak?) ¿Zenbat ordu ditu egun batek? Zenbat egun ditu aste batek?

Zazpi egunegaz egiten da astea. 30 edo 31 egunek egiten dabe ilēbetea. Urteak 365 egun ditu.

Ona ilābeteen izenak: Urtañila, zezeila, martia, aprila mayetza, bagila, garagañila, agostua, iraila uria, zemendia ta abendua. Oraingo ilābetea iraila dogu. ¿Zein ilēbete dogu oraingo au? Gaur amaboskañena da (amaboskañen eguna da gaur, gaur irailen amaboskañena da). ¿Zenkañen eguna dogu gaur? Amaboskañena dogu. ¿Ze egun da gaur? Gaur irailen amaboskañena da. Oraingo ilēbete au iraila dogu; lengo ilea agostua izan zan. Datoñen ilea (ilēbetea) uria izango da. Gaur eguena dogu; atzo eguaztena izan zan; biar barikua izango da. Gaur 15'gañen eguna da, atzo 14'gañena izan zan, biar 16'gañena izango da. ¿Zenkakñena da gaur? ¿Zenkakñena izan zan atzo? ¿Zenkakñena izango dogu biar? ¿Arañegun zenbakñena izan zan? ¿Zenkakñena izango da biar, etzi?

Urteak lau aro ditu: udabaria, udea, udagoyena (udazkena) eta negua. Martia, Aprila ta Mayetza udabafiko ilābeteak dira; bagila, garagañila ta agostua dira udako ilābeteak; iraila, uria ta zemendia dira udagoyeneko ilābeteak eta abendua, urtañila ta zezeila dira neguko ilābeteak. ¿Zein ete da oraingo urtaroa? ¿Udan, udagoyenean, neguan, ala udabarian ete gara?

párido = surbil

Irakuri ta itz egiteko

Ona egutegi bat. Ona urteko irureun eta irurogeta bost egunak dituan egutegia. Urte bakotxak amabi ilabete ta berogeta amabi aste ditu.

Aste batek zazpi egun ditu, ta ona euren izenak; astelena, martitzena, eguaztena, eguena, barikua, sapatua, domekea. Asteko sei egunetan bear egitēn dogu; zazpigārenean, domekan, ez dogu bearik egiten. Yayeguna da.

Īleen izenak onek dira: Urtañila, zezeila, martia, aprila, mayetza, bagila, garagañila agostua, iraila, uria, zemendia ta ebendua. Īlabete batzuk ogetamar egun ditue, beste batzuk ogeta amaika, eta bakarik zezeilak ditu ogetazortzi. Lau urtetik lau urtera zezeilak ogeta bederatzi egun izaten ditu, eta urte oneri seibiduna esaten yako

Urte bakotxak lau urtaro ditu, ta onexek dira; udabañia, udea, udagoyena ta negua. Martia aprila ta mayetza udabañikoak dira; bagila, garagañila ta agostua, udakoak dira; iraila, uria ta zemendia udagoyenekoak ditugu, ta ebendua, urtañila ta zezeila neguko ilabeteak dira.

¿Esan ziñeist zein urtarotan aurkitzen garean? (¿Zein urtarotan aurkitzen gara orain?) Neguan aurkitzen gara (neguan sartuta gagoz). Urtaro au martien ogetabatgañen egunean amaitzen da ta orduantxe asten da udabañia (egun oñetan esten yaku udabañia). Gaur martien bigařena dogu (martien bigařena dogu gaur); atzo izan zan lenengokoa; biar izango da irugařena. Īleko edo asteko zein egunetan bizi garan yakin nai baldin badogu egutegiari begitu bear izaten dautsogu. Igaz, miła bederatziureun eta ogetazazpigañen urtean, urtañilaren lenengo eguna sapatuz yausi zan, aurten, miła bederatziureun eta ogetazortzigañen urtean urtañilaren lenengo eguna domekaz yausi da, eta datořen urtean, 1929 gařenean, martitzenez yausiko da. Gaur, urtañilaren zazpigařena, sapa-

tua dogu ta oregaitik zuk gaur emoten daustazu asteko azkenengo ikaskaya; domekaz eskolea itxita egoten da.

Onezkero amabirik dira, amaitu dozu ikastaldia, yoan zeinkez, baña idatzi egizu eragokuna datoñen astelenerako (datoñen astelenerako idatzi egizu eragokuna).

Eragokunak

1. ¿Zenbat egun ditu urte batek?
2. ¿Zenbat aste sartzen dira urte batean?
3. ¿Zenbat egun ditu astebe-teak?
4. ¿Noiz asten yaku urtea?
5. ¿Zein da urtearen lenengo, irugañen, boskañen, zortzigañen ilabetea?
6. ¿Urtearen azkenengo ilabetea baño aureragokoari zelan deritxo? (¿zer dau izena?).
7. ¿Asteko zazpi egunak zeintzuk dira?
8. Asteko azkenengo egunari ¿zelan deritxo?
9. Gaur asteko ¿zein egunetan aurkitzen gara? (¿asteko zein egunetan aurkitzen gara gaur?).
10. ¿Domekea izan zan atzo?
11. ¿Zein egunetan etoñten zara zu ona?
12. ¿Amaboskañena barikua izango ete da?
13. ¿Zenbat denpora egoten zara zu emen?
14. ¿Zenbat denpora irauten dau zure ikastaldiak?
15. ¿Zerbakañena dogu gaur?
16. Datoñen astelena ¿zeinbakañena izango da?
17. Ilaren azkenengo eguna ¿zenbakañena izango da?
18. Biar da ilaren azkenengoa?
19. ¿Zein urtarotan aurkitzen gara orain?
20. ¿Zenbat irauten dau urtaro bakotxak?
21. Uda-ko ilabeteak ¿zeintzuk ete dira?
22. Neguaren osteko urtaroari ¿zelan deritxo? (¿zelan deritxo neguaren urengoko urtaroari?)
23. ¿Udabañian aurkitzen gara orain?
24. ¿Zein egun dator domekearen auretik?
25. Ze ordu dogu onezkero?
26. ¿Zein egunetan egiten dogu bear?
27. Domeketan bearik egiten dozu?
28. ¿Irakasleak artzen dabe ikaskairik domekaz?
29. Zein egun artzen dogu yai egiteko?

Eguna ta gaba

(Eguna da; gaba da).

Itzez egitekoa

Eguzkia zeruan agertzen yaku. Egunaz ikusten dogu eguzkia; begien aurrean dogu egunaz eguzkia. Gabaz itargia ta izañak ikusten ditugu; eguzkia ostenduta egoten da gabaz.

Egunaz ederto ikusten ditugu gauzak, argi-argi egoten dalako (argi argi egoten da ta). Gabaz ez ditugu gauzak ain ondo ikusten, ilun-ilun egoten da ta. Ikasgu au argi-argi dago, leyo edeñak, andiak eta zabalak ditu ta. Bañuko gela oñek, leyorik ez dauko ta, ilun ilun egoten da beti.

Gabaz alde guztiak, inguru guztiak ilun-ilun egoten dira ta ikusteko argia bear izaten dogu; edo orio argia edo tximistaduna, eletrizidadeduna (eletrikea). Ikasgu onetan txismist-argia dogu. Tximist-argiak argituten dauku ikasgua (Eskolan argi eletrikeak egiten dauku argi). Nik biztuten dot argia. Neuk amatetan dot. Zuek biztuten dozue argia. Zuek amatetan dozue argia. ¿Zer egiten dot nik? ¿Zer egiten dozue zuek?

¿Eguzkia nun dago? Zeruan. ¿Noiz ikusten dozue eguzkia? Ugunez. ¿Ikusten ete dogu gabaz eguzkia? ¿Zer ikusten dogu zeruan gabaz? Itargia eta izañak. Ilun dagonean ikusten al dozu ezer? ¿Argi dagonean ezer ikusten ete dozu?

¿Noiz biztuten dogu argia, egunez ala gabaz? Orio argia ala eletrikea daukogu guk emen? (¿orio argia ala tximistaduna ete daukogu guk emen?) Argi-ontzi bategaz egiten dogu argi. ¿Argi-ontzirik ba al daukozu? Ona argi-ontzi bat. Biztu egizu argia mesedez. Ekazu argi-ontzi bat. Eskeñik asko. Biztu egizu tximistargia mesedez. Amatu egizu. Biztu egizu bañero. Eskeñik asko.

Eguzkiak urten egiten dau; eguzkia sartu edo ostendu egiten da. Eguzkiak goizean urtetan dau; arastian (arasaldean) sartzen da. Eguna goizean asi ta gaubean amaitzen da. Gaba arastian asi eta goizean amaitzen yaku. Eguna, gaba. Udan eguna goizeko irurretan asten da. Neguan arastiko bostean asten da gaba.

¿Noiz urtetan dau eguzkiak? (¿noiz yagiten da eguzkia?) Goizean. ¿Noiz ostenduten yaku (¿noiz ostenduten da?) eguzkia? Arastian. ¿Ze ordutan urtetan dau eguzkiak udan? Goizeko lauretan (bostetan); goizetik urten daroa. ¿Ze ordutan urtetan dau neguan? Goizeko zazpiretan (zortziretan); berandu urten daroa. Goiz, berandu (belu). Eguna udan ¿luzeak izaten dira? Eguna neguan ¿luzeak izaten ete dira? ¿Zegaitik izaten eta dira eguna udan luzeak? Eguzkiak goizetik urtetan dau alako (eguzkia goiz yagiten dalako) ¿Gabak neguan, luzeak izaten ete dira? ¿Zegaitik izaten ete dira gabak neguan luzeak? Eguzkia berandu (belu) yagiten dalako. ¿Neguan goizeko bostetan argi egoten da? ¿Udan arastiko seiretan ilun egoten da?

Irakuri ta itz egiteko

Egunaren ogetalau orduak zati bitan erdibiltzen dira: eguna ta gaba. Eguna argi egoten da eta guk ederto ikusi geinke edozer gauza; baña gabaz ilun egoten da ta ez dogu ezer bere ikusten (ezin izaten dogu ezer ikusi), ta argiren bat biztu bear izaten dogu; orioduna edo tximistaduna zerbait ikusi nai baldin badogu.

Zuk diñozu emen ilun dagola orain, tira ba, ona argiontzi bat, biztu egizu mesedez. Biztu egizu tximistargia mesedez. Orain argiak argitu dausku ikasgua. Edozer gauza ikusi geinke orain, argi dago ta. ¿Zek egiten dausku argi orain? ¿Ondo ikusten dozu? Gela edo areto andietan tximistadun argia eukiten dabe, beronek oriodun argia baño argi geyago ta atsegingarriagoa emoten dau ta.

Eguneko argia eguzkiagandik yatorku, zeruan agiri dan eguzkiagandik. Begiratu egizu leyotik ¿ikusten dozu gure gañean zeru urdin edera? Gabaz eguzki ori ostenduta egoten da, ta guk ezin izaten dogu ezer ikusi gure inguruan; baña itargia ta izañak ikusten ditugu zeruan. Izañak asko ta asko dira; ezin dira ezetara bere zenbatu.

Egunaren askereari goiza deritxo ta egunaren amari gaba. Goizean eguzkiak urten egiten dau; arastian, sartu egiten da. Eguzkiak sorkaldetik urten daroa, ta sorkaldetik sartzen da.

Amabietan (eguerdian) eguzkia egoaldean edo egoalderantza egoten da; ipaialdea egoaldearen aurrez-aurre dagon aizealdea da. Sorkaldea; sorkaldea, egoaldea, ta ipaialdea dira ezagutzen ditugun lau aize-alderdiak.

Udan eguzkiak goizetik urten daroa, irurretan edo lauretan (irurak edo laurak inguruan) eta egunak luzeak izan oi dira; baña neguan oso berandu urten daroa, zazpiretan edo beranduago; egunak oso laburak izaten dira.

Egunaz egiten dogu bear (bearean ekiten dautsogu egunaz). Arastian etxeratzen gara; gabaz oyan sartu ta lo egiten dogu; goizean yagi egiten gara, gorputza edo arpegia ta eskuak garbitu egiten ditugu, oraztu egiten gara, yantzi, ta gosaldu egiten dogu.

Eragokunak

1. ¿Zelan zatitu edo erdibitzen dira egunaren ogetalau orduak?
2. ¿Noiz egoten da argi?
3. ¿Orain ilun dago?
4. ¿Nundik yatorku eguneko argia?
5. Eguzkia ¿nun dago?
6. ¿Eguzkiak egiten dauku argirik gabaz?
7. ¿Zelan argituten da ikasgu au gabaz?
8. Gabaz ikusi nai baldin badogu ¿zer egiten dogu?
9. ¿Zer ikusten dozu gabaz zeruan?
10. ¿Zeintzuk dira aizearen lau alderdiak?
11. ¿Noiz urteten dau eguzkiak?
12. ¿Martien ze ordutan urten daroa?
13. ¿Eguzkia udan goizetik ostenduten da?
14. Ze ordutan sartzen da eguzkia orain?
15. ¿Zein urtarotan izaten dira egunak luzeago?
16. ¿Orain gabak

egunak baizen luzeak ete dira? 17. ¿Argi ez baldin badago zuk ikusi zeinkez ondo inguruko gauzak? 18. ¿Noiz biztuten dogu guk argia? 19. ¿Zegaz biztuten dogu argia? 20. ¿Noiz yoaten zara etxera? 21. ¿Zegaz egiten dogu argi? 22. ¿Zer egiten dogu goizean? 21. ¿Ze ordutan gosaltzen dozu? 24. ¿Ze ordurarte egiten dogu bear? 25. ¿Beaía maite dozu? 26. ¿Iretargiaren argitasuna eguzkiarena baizen bizia al da? 27. ¿Tximistargiak oriodun argiak baño argi biziagoa dauko? 28. ¿Noiz egiten dauku argi itargiak? 29. ¿Zenbatu ete leitekez izaíaak? 30. ¿Nundik urteten dau eguzkiak? 31. ¿Nundik sartzen da? 32. ¿Ze ordutan etxeratzen zara zu? 33. Neguan udan baño beranduago etxeratzen zara? 34. ¿Goizetik yagiten zara udan? 35. Nik gaubeko bederatziretan oeratzen naz, ¿berandu da? 36. ¿Ni zu baño beranduago oeratzen naz? 37. ¿Seiretan neguan oindiño argi-argi egoten da eguna? 38. Garagaílean, aíaastiko zortziretan gaba izaten al da?

Eguraldiak

(Eguraldi ona da; eguraldi txara da).

Itzez egitekoa

Zerua ilun agertzen yakunean, odeiz estaldurik egoten da. ¿Zelango margoa euki daroa orduan zeruak? Aírea ¿Zerez estaldurik agertzen yaku orduan zerua? ¿Zelango margodunak izaten dira odehyak?

Zerua odeiz estaldurik agertzen yakunean euria izaten da; euria da. Neguan eduía izaten da saí (eduía da). Eduía zuria da, baña goía.

Zerua urdin dago; eguzkia agiri da zeruan—eguraldi ona da. Euria da; eduía da— eguraldi txara da.

Ona guardasol bat (aterki bat). Euria edo eduía danean aterkia zabaldu daroagu. ¿Aterkirik ba al daukozu? ¿Noiz zabalдутen dozu zure aterkia? ¿Euria ari danean zein margo euki daroa zeruak? ¿Aprílean euri asko

egin daroa? ¿Udan edurik izaten ete da? ¿Neguan izaten da edurik? ¿Zelango margoduna dogu edura? ¿Zerez estaltzen dira neguan etxeak eta kaleak? ¿Zabaltzen ete dituzue aterkiak eguzkia danean? Ez. ¿Zer zabaltzen dozue orduan ba? Eguzkitakoa. Euritakoa (aterkia). Eguzkitakoa. ¿Zer zabaltzen dabe andrak eguzkia danean? ¿Zerua margo areaz agiri danean eguzkirik egiten ete dau?

¿Eguraldi ona al da gaur? ¿Eguraldi txara danean urteten dozu kalera? Eguraldi txara danean ¿zelango margoa euki daroa zeruak? ¿Zelango eguraldia eginten dau gaur, ona ala txara?

Udan soñeko gitxi iminten ditugu; neguan bariz, soñeko askogaz ibilten gara. Udan etxeko leyo ta ateak zabal-zabalik eukiten ditugu; neguan bariz, sutondoan yarita sari egon oi gara ipuñak esan edo entzuten. Udan bero egiten dau (bero da), neguan bariz, otz egiten dau (otz izaten da). ¿Neguan kalean ibilten zaree? ¿Agostuan bero izaten da? ¿Urtaillean bero izaten ete da? ¿Apirka'ren erdian dagozan erietan bero izaten al da? ¿Ipañaldeko lur egalean otz izaten al da?

Soñeko asko iminten baldin badituzu bero izaten zara. Neguan gañeko soñeko barik urten ezkerro kalera, otz izaten zara. ¿Bero izaten ete gara udan eguzkitatik ibili ezkerro? Neguan etxeko leyoak zabaldu ezkerro ¿otz izaten ete gara?

Etxe baten. Kalean, etxean, bero da, otz da.

Sutontzia beroegi baldin badago zuk ezin dautsozu ukutu. Sopea otzegi egon ezkerro ez da ona izaten. Zuk ezin izaten dozu artu kafea beroegi egon ezkerro (ezketiño.

¿Kafe otza atsegin yatzu? Ukutu egiozu sutontziari ¿bero ala otz dago? ¿Orain zu otz ala bero zara? (Ni ez naz ez otz ez bero, ederto aurkizen naz). ¿Gela onetan bero ala otz daukozue? (Ez dogu susmetan ez otz ez bero, ederto aurkitzen gara bertan).

Ipañaldeko lur egalean neguan ta udan otz egiten dau, egunean-egunean egiten dau otz luñeko alderdi aretan, ez dau sekula bere berorik egiten bertan.

Bilbo'n neguan ikusten dogu edur apurtxoren bat noizean bein; udan ez dau bein bere edurik egiten.

¿Martien edurik egiten ete dau Bilbo'n? Bai, batzuetan egiten dau zerbait. ¿Agostuen edurik egiten ete dau? Ez, Agostuen ez dau inoiz bere, edurik egiten. ¿Irakasleak egunero egiten dau euskeraz ikastaldia emoten daragoyon bitartean? Bai, egunean-egunean (egunero). ¿Berak inoiz egiten dau erdera apuren bat? Ez, sekula bere ez (inoiz bere ez). ¿Zegaitik ori? Berlitz deritxon irakasbidea darabilen irakasleak beti egin bear izaten dautselako euren ikasleei eurek, ikasi nai daben izkuntzan, eta ez ikasleak lendik dakien izkuntzan; ezin dabe inoiz bere, ikasleak dakien izkuntza eskolan erabili. Bilbon saritxo izaten da euria (Bilbo euritsua da) Iruña'n gitxian izaten da euria (Iruña ez da euritsua); geyenetan eguraldi ona izaten da Iruña'n.

¿Egunean-egunean bazkaltzen dozu ordu berean? Ez, geyenetan amabietan bazkaltzen dot; baña batzuetan ordubatetan bere bai; beranduago gitxitan.

Irakuri ta itz egiteko

Zerua afea edo rabaña agiri da; odeiz estaldurik dago; ur iantakada lodiak eta andiak catoz goitik beera, euria da (euria ari da). Zabaldu egizu euritakoa. Orain ez gara bustiten gorputzetik beintzat, baña ibilteko aro txarra dago, kalea urez beterik agiri da ta etzera etxera yoan bearko dogu, kanpotik ibilteko eguraldi txarra dago ta.

Gela onetan ederto ogon leiteke, giro ona dago, emen egoteko. Yantzi bustiak kendu (soñeko bustiak kendu) eta legorak iminten ditugu (sikuak). ¡Au da eguraldiaren txarra! ¡Ikusi! ora nun asten dan edura oster. Oraingo aldirako eguraldi txarak (denpora txarak) egiten ditu; Aprilean sartuta gagoz, baña au Abenduko eguraldien antzekoa dogu, otz andia egiten dau benetan.

Yari zaitez suto doan eta berotu zaitez. Sua oso motel dago. ¡Yon!, bota egiozu ikatz apurtxo bat suari. ¿Otz

zaree ala? Imiñi egizuz oñak sutondoan (sartu egizuz anakak barurago) berotuteko. ¿Epeldu zara? ¿Berotu zara? Eskerik asko oraintxe ederto nago (ederto aurkitzen naz. Anketako otza txara izaten da oso. Ni gaizki aurkitzen naz anketako otza daukodanean.

Begira ona. Zelango aizea dabilen kanpoan, gizon orek bere kapela eskuan artu bear izan dau aizeak eroan ez dagion. Aize au oso iguingarria da, baña beronek eroango ditu odehyak beragaz euria meztuten asi da. Geratu da euria. Orain ez da euririk. Ateri da. Atertu dau.

Eragokunak

1. Eguraldi txara danean ¿zelango margoa izaten dau zeruak? 2. ¿Zerez estaltzen da zerua? 3. ¿Orain euria da? 4. ¿Zer yausten da zerutik lurera neguan? 5. Kaleak urez beterik dagozanean ibilteko aro ona izaten da? 6. Euriagaz ez bustitzeko ¿zer eroaten dogu eskuan? 7. Eta eguzkiagaz ez baltzitateko ¿zer? 8. ¿Zelango denporea egiten dau gaur? 9. ¿Eguraldi txara danean urtente dozu etxetik? 10. ¿Beró andia egiten ete dau gela onetan? 11. ¿Otz egiten ete dau emen? 12. ¿Zein ilabetetan egiten dau edura? 13. ¿Otz zara? 14. ¿Zegaz berotuten dogu gelean neguan? 15. ¿Lur egaletan sua egiten dabe gizonak udan? 16. ¿Zegaz egiten ete dabe sua? 17. ¿Zer egiten dogu guk otza kentzeko? 18. ¿Nundik dator beroa? 19. ¿Eguzkia neguan udan baizen epel egoten da? 20. Ibilteko aro txara izaten da kalean euria danean? 21. ¿Nun yarten zara berotuteko? 22. ¿Aize andia dabilenean atsegin izaten yatzu etxetik urtetea? 23. ¿Zek erabilten ete ditu odehyak leku batetik bestera? 24. ¿Zein ilabetetan egiten ete dau aize andia? 25. ¿Zein ilabetetan iminten dituzue yantzi lodiak? 26. ¿Iruña'n zelango eguraldia egiten ete dau geyenetan? 27. ¿Bilbo'n izaten ete da edurik zezeilean? 28. Aprilean edur geyago eginte dau? 29. ¿Agostuen egiten dau arean edurik? 30. ¿Beti, egiten ete dau otz iparaldeko lur egalean? 31. Gitxitan izaten ete da

